

Areatzako Mendi Martxea urri lehenengoaren 10ean izango da
14. orrialdea

Zeanuriko ermitak ikusteko mendi martxea hilaren 4an

Joko Alai alkarteak Zeanuriko Ermiten XXIX. Mendi Martxea antolatu dau urri lehenengoaren 4rako. Ibilbide luzeak 35 km. izango ditu; ertainak 28 km.; laburrak 15 km., eta umeentzakoak 13,5. Urtekerea. 07:30ean izango da plazan. Umeak 09:00etan urtengo dira. **16. orrialdea**



Arratiak Bigarren Mailako lehen partidua hilaren 4an jokatuko dau andren ligan
15. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

257

2016ko urri lehenengoaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Udako atzen herriko jaiak

Zeberio eta Artean herriko jaiak ospatuko dabez hamabostaldi honetan. Zeberion urri lehenengoagaz batera hasiko dira jaiak. Artean andramariak ospatuko ditue.

Herriko trikitilari gazteak animauko dabez Zeberioko kaleak jaietan, eta ume eta gaztetxoentzako ekitaldi ugari egongo dira jaietan; hau da, hilaren 1etik 5era bitartean. Zapatu gauean lau taldek, Fetitxe, Zazkel, Txapel Punk eta Garilak 26k, joko dabe hamaiketarik aurrera. Gastronomia lehiaketak eta kirolak be egitarauaren zati garrantzitsua

osotuten dabe.

Arteako jai egitarauaren barruan, Niketz eta Sorkunek joko dabe hurrengo zapatu gauean. Eta umeentzako pailazoak, kuadrilen olinpiadak eta erromeriak be ez dira faltauko Arteako jaietan.

Hilaren 17an, MerkArtea dala eta, gauean, Kalakan taldearen kontzertua, erromeria eta DJ-a egongo dira Artean. **5. eta 7. orrialdeak**



Arteako jaiak.

Artxiboko argazkia.

LEMOA

Abadetxea Kultur gune izango da

Lemoako Udalak eta Bilboko Gotzaindegiak akordioa sinatu dabe Lemoako abadetxea kultur ekipamentu bihurtzeko. Abadetxeaz gainera, Arraibiko liburutegiak eta ludotekeak, Jubiladuen Etxearen gaineko aretoak eta Elizondoko Kultur Guneak osotuten dabe Lemoako azpiegitura kulturala.

Eskeintza kulturala hobetuteko, eraikin handi baten preminan egoala herria konturatu ziran udalekoak eta aproposa iruditu jakien abadetxea. Negoziazionak hasi eta garagarriean akordioa sinatu eben Gotzaindegiagaz. Udalaren ardura izango da eraikina barrizatzea.

Urri lehenengoan, Lemoako Udalak parte hartze prozesua zabalduko dau kultur guneak berrantolatu eta berdiseinetako. **6. orrialdea**

ARRATIA

Ikastaro eta tailer eskeintza zabala

Arantzazu, Bedia, Dima, Lemoa eta Zeanuriko udalen 2016-2017 ikasturteko eskeintzak 30 ikastarotik gora batzean ditu. Beste herrietakoak eta Arratiako Jabekuntza Eskolako ikastaroen barri hurrengo BEGITU izango da.

Ikastaro batzuk urtean urtean egiten dira eta ikasle fidelak daukiez, beste batzuk, barriz, barriak izango dira premina eta ohitura barriari egokitzeko edota jentek eskatuta. Horretarako, Arantzazun berbarako, hilaren 3ra arte, ikastaro proposamenak jasoko ditue udaletxean. **5. orrialdea**

DIMA

Beñat Saratxo Dimakoak irabazi dau artzai txakurren Bizkaiko txapela

Abuztuaren 28an jokatu zan Dimako landetan erraza libreko Bizkaiko Artzai Txakur Txapelketea eta Dimako Beñat Saratxo, Rita txakurragaz, izan zan irabazlea. Txakurrak proba bi egin behar izan ebezan; lehenengoan, artaldeak ibilbide bat egin behar eban, eta bigarrenetan, eskortan sartu. Saikatu ziran lehenengo hirurak Euskadiko Txapelketan lehiatuko dira. **8. eta 9. orrialdeak**



Erinn
ENGLISH
SCHOOL

- Cambridge / EOI (ESOL - IELTS) Azterketa ofizialearako prestakuntza
- Maila guztiak, umeak 4 urtetik aurrera
- Mintzapraktikan arreta berezia
- Ingeles irakasle natiboa, 15 urtetik gorako esperientzia
- Klaseak enpresetan
- Ordutegi malgua (zapatuak barne)
- Talde txikiak

IRAILERAKO MATRIKULA ZABALIK

Apunta zaituz!

INFORMAZINO GEHIAGO

BARRY - AGATE 665 289 259
erinnigorre@gmail.com
f Erinn Igorre

Olabari, 17 (Polikiroldegiaren ondoan)
48140 IGORRE

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com


BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ule



Personeari eta hainbat animalari buruan eta azalean urteten deuten filamentu mehe-mehea da ulea (ulléa, agoskatuta). Batuaz, ile da. Personen ule naturala, esate baterako, zuria, gorria eta baltza izaten da. Koloreztatua bada, ule-pinta esaten da. Orraztokeran, uleak izen desbardinak hartzean ditu: ule lisu, ule astin, motots, txorta... Orraztu bako ule luze eta kiribildua, barriz, ule-zapa edo ule-moltso da. Azkenez, ulea ebagiten dauan beharginari ule-ebatzaila (ullebatzálla, agoskatuta) esaten jako.

ERETXIA

Antiespezismoa

Orain dala urte bi itxi neutsan animaliak jateari, eta orain dala gitxidani ez dot animalietatik eratorritako esnekirik hartzean, zuzenean behintzat. Nire burua transfeministatzat daukat, hau oinarri hartuta, ezin dot ulertu espezista, arrazista, homo-transfobikoa edota kapitalista dan feminismoa irakurleak. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Begano zein begetarianooi leporatu deuskuen gauzetako bat landareak euki leikien sufrimentua aintzat hartzean ez dogula da. Ironikoa bada be, defentsiban jarten diran "karnakak" esaten deuskuez holakoak. Entzunda daukadanez, landare eta onddoak ez daukie nerbio sistemarik eta beraz, ez daukie sufritzeko gaitasunik. Ez dakit egia ala guzurreta ete dan. Badakidana da gizakiak ez diran animaliak, gu bezala, sufritzeko gaitasuna daukiela, bai fisikoki bai psikologikoki, eta nik sufrimentu horregaz amaitu ahal badot, nire esku dauana egiten saiatuko naz. Gainera, gizakia ez da orojalea, barazkijalea da, ez dau okelarik behar bizirauteko, bai ordea barazkiak eta frutuak. Beraz, lehoi batek bizirauteko zebra bat jaten dauan moduan, guk bizirauteko landareak jan beharra daukagu, sufridu ala sufridu ez.

Okela, esnea, arrautz, narru eta animalietatik eratorritako edozein produkturen eredu hegemonikoa industrial da. Animaliak kaioretan izaten dabez jaiotzen diranetik erailten dabezan arte, horretako jaiotze-eta, erailak izateko. Behien eta txarrien kasuan, emea behin eta barriz bortxatua izaten da kontsumorako kumeak izan dagiazan, honeek jaiotakoan amarengandik aldunduz. Esnearen atzean antzerako merkaturak dago. Behiak esnea era natural batean ekoizteko, gizakion moduan, haurdunaldi baten agertzen diran hormonak behar dabez eta kantidad hori euren kumeak elikatzeko bezainbestekoa da. Gizakia elikatzeko esnea produzidu dagien, hormonau edota bortxatu



EVA PEREZ-PONS

Ikaslea

egiten da behia, pusa isuritzeraino, erabateko estres eta esplotazio egoerara eroanez. Eta holan nekez hil arte. Zelan da posible eraso sexisten kontra egon eta bortxaketatik datorren esnea edatea? Zelan da posible amnistia alde egon eta bere bizitza kaio-la baten emon dauan animalia baten gorpua jan edo zoo baten jipoitua eta kaiolatua izan dan elefante baten espektakulua ikustea? Zezenketen kontra egotea ondo dago, baina ez dauka zentzurik bizi gura eban izaki baten gorpua jaten badogu gero.

Gai honetan ekologismoa be eztabaidan sartzean da. Izan be, sojaren landaketak herrialde pobretuetan esplotazio eta deforestazio handia dakarrelako kritikatu izan da, eta egia da, baina ez bakarrik munduan gagozan begano edo begetarianoongaitik, soja "konsumorako animaliak" era merke baten elikatzeko erabilten diralako baino. Are gehiago, Amaluraz arduratzen hastekotan, haragia garraiatzeko erabilten diran garraioak sortzean daben kutsadura eta era artifizialean jaiotako animaliak sortzean daben metano zein zakarkerian jarriko neuke begiradea. Eta noski, nekazaritza eredu kapitalista iraultzea beharrezkoa dogu, sasoiaren sasoiko eta gertuko barazki eta frutuak konsumiduz.

Erabilten dogun erropia be ez da guzti honetaz libretan; zenbait animalari narrua bizirik dagozanean kentzean deustie, kotoia be herrialde azpigaratuetako esplotazioz lortzean da hein handi baten, eta multinazionalak lanpostu prekarizauak eta kanon sexistak sortuz aberasten dira.

Honegaz guztiagaz gura dot esan beganismoa ez dala dieta soil bat, jarrera politikoa dala eta hasikeran esan dodazan gainontzeko burrukakaz batera, etenbako autokritika egoera eraikitzailean jartzen deuskula mundu justuago bat eraikitze aldera.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea Auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatua Batzua jartza

MONDRAGON

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA**

Mugarri boskoitza

Areatik Areatza-Villarora bidean, ezkerretara, Lamindaorako bidea dago eta bide hori hartu eta lasterrera, Biteri parean, mugarri boskoitz bat egoan lehenago, harik eta herri banaketa barria egin arte.

Mugarri boskoitz horretan bat egiten eben herriak bost ziran. Aikomenzan bostak: Zeanuri, Dima, Areatza-Villaro, Artea eta Arantzazu.

Bost herriotatik lau eleizateak dira eta Areatza-Villaro, uri edo *villa*, eta oraintsurarte Villaro izenez ezetu doguna, gaur egun Areatza euskal izenez ezagutzen da, batez be belaunaldi gaztearen aldetik.

Honezker, baten batek pentsau izango dau berekitan ia Arantzazuk zer zerikusi daukan mugarri horregaz. Ba, bai, badauka zerikusia eta parte be bai, bueno baeukan bere interan.

Aiko. Artea eta Areatza-Villaro bitartean dagoan Biteri auzunea, Arantzazu zan, lehenagoko usura,

enklabe bat, terreno linealari saltu eginda edo eta alborik hara joanda.

Enklabe kasuak ugari dagoz han-hor-hemen. Esaterako, Zeberio Albitzu auzunea, herriz Arantzazu zan eta eleizaz Zeberio. Eta haragora bagoaz, esaterako, Sukarrietara, ba, han, Urdaibai itsasadarrarean bestaldeko Kanalako baserri batzuk Sukarrieta dira gaur be. Eta herri osoetara bagoaz, aikor Urduña, Bizkaitik kanpo.

Mugarrietan sartu garan ezker, ondo letorke argitasun batzuk emotea batez be gaurko belaunaldi gazteari.

Mugarri berbeak berak dinosku esangurea, hau da, "muga+(h) ari" > mugarri. Mugarria, linderoa marketan dauan harria da baina ez edozein harri. Mugarri bat sartzean danean, linderoko propietarioak aurrean egonten dira testigantza emoteko eta mugariaren azpian, teila, ikatz edo usteltzen ez dan zeozer ipini behar da testigu legez.

Mugarrien kontua eztabidagarria izan da sarri-askotan. Haserre txikiak ezeze, alozokoak be egon dira batean-beste mugarriak dirala-eta. Lehenago, gure herrietan, herri-baso eta oilalur ugari egoan. Herri-basoak udalak gobernatzan ebazan baina oilalurrak ez, oilalurrak danonak ziran eta, jakina, baten bat mugarri barria sartu eta jaubetzen bazan, orduan komediak, lapur-gedarrez burrukea edo demanda demandearen gainean!

Mugarrien historiak esaera zahar bat be emon deusku eta bere irakatsia gogoan hartzekoa da txarragora joan ez egiteko. Aikomen esakerea: "Ez sartu barruregi inoren mugarietan" eta urtetan ez badakizu, gitxiago.

ZERTZEAN



ARKAITZ ESTIBALLES

Amamaren begietan *

1

Hogeita hamazazpiko maiatzaren hamarrean, zazpi esne-behi zebiltzan hara ta hona larrean, kortako lanak amaitu barri, kontu-kontari zineten jarri, gure sukalde zaharrean, hiru semetxo ta bi alaba, ondoan gure amama Klara, lapikoaren aurrean.

2

Zazpi gizon sartu ziren, zazpi arma eskuetan, esanez ez zintuztela sarri ikusten mezetan... etxeko kajoi guztiak husten, gero eraman egin zintuzten, negarrez ta odoletan, nahiz ta ez zuen gura kontatu, mina ez da inoiz, ez, ezabatu, amamaren begietan.

3

Gauetz eraman zintuzten, gauetz, aitite Kandido, kamioneta zahar baten bultzaka zintuzten igo, gure etxeko zorion dena, indarrez ostu nahi zigutena, ez zen bueltatu berriro, nahiz (e)ta ahazten zen ahalegindu gure amamak beti jakin du, zeinek eman zizun tiro!

4

Amamari joan aurretik zeuzkan indarren apurrak, zuretzako izan dira bere azken hitz samurrak... asko kostata ta urteekin, agertu zara sei lagunekin, mugitu ostean lurrak... mina ez da inoiz, ez, ezabatu, nahiz ta bihotzik ezin elkartu, elkartu dira hezurak.

* Memoria historikoaren gainean Lemoako Udalak ateratako *Hauxe da gure kantua* diskorako Arkaitz Estiballesek egindako bertsoak.

BEGI TXINDORRA

Azoreetako Sao Miguel irlan, Furnas lakuari ateratako argazkia bialdu deusku Sara Gutierrezek, irakurleakaz konpartidu eta Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Irudiak ikusi baino ezin dira egin, baina memoriak komunikazinoa ahalbidetzen dau. Holan, ezetu doguzan mendi eta lakuak gogora ekarten deuskuz argazki honek eta imajinatu ahal doguz berdearen usaina, uraren freskotasuna, eta lainoai nagusituko jakon eguzkiaren epeltasuna. Eskerrik asko Sara, eta zorte on!

Lehiaketan parte hartzeako argazkiak hilaren 27ra arte bialdu daitezke beginu@topagunea.com helbidera. Irabazleak landetxe baten persona birentzako gau biko egonaldia izango dau saritzat. Holan, opor txikiak bizi ahal izango ditu barriro be, eta presa barik inguruari begiruteak emoten dauan zorientasun moduko hori, barriro sentiduko dau akaso. Aukerea ez galdu!



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Udal ikastaroetan izena emoteko epea zabalik

Erredakzioa

2016-2017 ikasturteko udal ikastaro eta tailerrak urrietan hasiko dira. Ikastaro batzuk urtean urtean egiten dira eta ikasle fidelak daukiez, beste batzuk, barriz, barriak izango dira premina eta ohitura barriai egokitzeko edota jentek eskatuta.

Ikastaro kontuetan barrikuntzarik handiena Arratiako Jabekuntza Eskolearen eskeintzea izango da. Ikastaro horreen barri eta falta diran herrietakoak hurrengo begitun emongo dogu. Hona, Arantzazu, Bedia, Dima, Lemoa eta Zeanuriko eskeintzearen barri dakargu. Guztira 30etik gora.

Arantzazu

Arantzazun izena emoteko epea urri lehenengoaren 3ra arte izango da eta ikastaro zehatzen bat egiteko proposamenak be egin daitezke ordura arte. Yoga, Mantenimintuko gimnasia eta Zunba eskeini dauz udalak momentuz. Ikastarook martxan ipinteko gitxieneko batek emon behar dau izena.

Dima

Diman urri lehenengotik abendura arteko Zunba ikastaro bat antolatu dabe eta bertan parte hartzeako izena emoteko epea zabalik dago hilaren 5era arte.

Beste ikastaroak: Yoga, Pilates, Eskulanak, Gimnasia hipopresiboa eta Zunba, urri bigarrenetik urtailera arte izango dira eta izena emoteko epea urri lehenengoaren 5etik 23ra izango da.

Prezioai jagokienean, 60 eta 100 euro bitartean dagoz Diman erroldatuentzat eta 110 eta 140 euro bitartean ez erroldatuentzat.

Bedia

Bediako Udalak antolatu dituan ikastaroetan parte hartzeako izena urri lehenengoaren 5etik 20ra emon daiteke 16:30etik 19:30erako ordutegian, liburutegian. Egurra Lantzen, Yoga, Pilates, Zunba, Haurrentzako Zunba, Korru jantzak, Umeentzako euskal jantzak, Ingelesa: mintza praktika,

Euskera ikasteko ikastaroa, Haurrentzako marrazketa, eta Marrazketak osotuten dabe Bediako eskeintza. Ikastaroen prezioa 50 eta 100 euro bitartekoa da Bedian erroldatuentzat, eta bikotxa ez erroldatuentzat. Taldeak osotuteko gitxienez 5 edo 6 lagunek emon behar dabe izena.

Lemoa

Lemoan ikasturte osoko ikastaroak Euskera ikasi eta erabili; Eskulan ikastaroa, eta Informatika, mekano-grafia eta IT txartelen prestaketa ikastaroa izango dira. Urri bigarren hasi eta abendurarte barriz, Sukaldaritza: menu orekatuak; Ebaketa, jantzigintza, kakorraz eta puntuari buruzko orientazio ikastaroak (I/II); eta Reflex Argazkigintza tailer praktikoa izeneko ikastaro eta tailerrak.

Ikastarootako matrikulea egiteko izena hilaren 12tik 23ra emon behar da Udaleko Kultura Zerbitzuan. Prezioai jagokienean, Lemoan erroldatuak eta langabetu eta ikasleak merkeago daukiez ikastaro eta tailerrok.

Urtailetik bagilera, Ebaketa, jantzigintza, kakorraz eta puntuari buruzko orientazio ikastaroaren jarraipena izango da; Patchwork ikastaroa, zezeiletik bagilera izango da eta Gorputza esnatzen jantza eta mobimentu kreatiboaren bitartez, urtailetik martira arte.

Kirol eskeintza ikasturte osokoa da eta Aerobicak, Yogak, Edadekoentzako mantenimintu gimnasiak, Umeentzako zunbak, Zunbak, Pilatesek, Ciclo indoor-ek, Hipopresiboak eta GAPEk osotuten dabe.

Zeanuri

Zeanuriko ikastaroetan izena emoteko epea urri lehenengoaren 5etik 15era izango da eta ikastarook hilaren 19an hasiko dira. Taldea sortu ezker, Mantenimintuzko gimnasia, Erlajazinoa, Stretching (luzaketak), Txikun, Josten ikasteko ikastaroa eta Gimnasia hipopresiboa izango dira. Atzenengo hau Mazala taldeagaz batera antolatu dau Udalak.

ZEBERIO

Herriko trikitilari gazteen kalejirak ipiniko dabe animazinoa sandonietan



Erredakzioa

Trikitixearen soinua nagusi izango da Zeberioko jaietan. Txupina bota ostein herriko trikitilari gazteak hasiko dira herria alaitzen euren musikeagaz eta hurrengo hiru egunetan be kalejirea egingo dabe. EinGO kantan ta dantzan taldeak euskal musika tresna tradizionalakaz animauko dau eguen gaua. Luhartz erromeria taldeak bariku gauean joko dau. Zapatu gauean Fetitxe, Zazkel, Txapel Punk eta Garilak 26 rock taldeak joko dabe.

Kirolak be hartuko ditu Zeberioko jaiak. Umeak surf-a egin ahal izango dabe lehorrean bada be, eta bizikleta martxan parte hartu zapatu goizean. Gazteak eta nagusiak Zeberio Karran VII. Lasterketea, eta kadete mailako Txirindulari Lasterketea izango dabe hurrengo egunean. Zeberio eta inguruko pelotari gazteak be neurtuko dira egunotan eta finala astelehenean jokatuko dabe.

Laura Orue hil ebenetik hamazazpi urte beteko dira aurtan.

Bere oroimenez mezea egongo da hilaren 4an.

Egitaraua

Urri lehenengoak 1, eguena

18:00etan, txupinazoa Txubel eta Buruhandiakaz. Animazinoa herriko trikitilari gazteakaz.

18:30ean, umeen jolasak.

19:30etik 21:30era, EinGO kantan ta dantzan taldea.

21:30ean, herri afaria. Txahal erre.

23:00etan, EinGO kantan ta dantzan taldea.

Urri lehenengoak 2, barikua

11:30etik 14:30era, umeen parkea. Puzgarriak eta surf ohola.

12:00etan, mezea.

13:00etan, barauskarria.

13:00etatik 15:00etara, kalejirea herriko trikitilari gazteakaz.

15:00etan, jubiladuen antolatutako bazkaria.

17:00etan, herriko jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketak.

17:00etan, animazinoa trikitilari gazteakaz.

18:00etan, Pirritx, Porrotx eta Ma-

rimotots pailazoak *Amalur* ikuskitunagaz.

23:00etan, erromeria Luhartz taldeagaz herriko plazan.

Urri lehenengoak 3, zapatua

12:00etan ume eta gazteentzako bizikleta martxea. Ibilbidea: Zeberioko plazea-Ugao-Zeberioko plazea. Aukerea dago edozein lekutan martxan sartzeako. Kaskoa derrigorrezkoa da.

13:00etan, kalejirea Musika Eskolako trikitilari gazteakaz.

14:00etan, Bakailau, Patata Tortilla eta Paella Txapelketak.

17:30ean, helduen arteko olinpiadak.

18:30ean, bits jai.

21:00etan, Play-Back-a eta karaokea.

23:00etan, kontzertuak: Fetitxe, Zazkel, Txapel Punk eta Garilak 26 taldeak.

Urri lehenengoak 4, domekea

10:30ean, kalejirea txistulariakaz.

11:00etan, gazte eta nagusien Zeberio Karran VII. Lasterketea.

13:00etan, Laura Orueren aldeko XVII. urteurreneko mezea.

13:30ean, Etorri jantza taldea plazan.

16:30ean, Asel Ozerinjaregi XXII. Memoria. Txirindulari lasterketea. Kadete maila.

18:30ean, Zeberio eta inguruko Pelotari Gazteen Txapelketea.

20:30ean, Zeani Antzerki Taldearen *Amari mutik bez* antzezlan aterpean.

Urri lehenengoak 5, astelehena

13:00etatik 15:00etara, poteoa Koldo eta Unai trikitilariakaz.

15:00etan, indababak lagun artean.

18:00etan, Zeberio eta inguruko pelotarien finala eta Larrabetzuko neska pelotarien partidua.

19:00etan, Disko festa 1980 eta 1990 hamarkadetako musikeagaz.





Zeberio Udalak
jai zoriontsuak opa deusuez

Ondo Pasau Sandonitan!



LEMOA

Lemoako abadetxea kultur gune bihurtzeko akordioa sinatu dabe



Erredakzioa

Lemoako Udalak eta Bilboko Gozaindegiak sinatutako akordioari esker, Lemoako abadetxea kultur ekipamentu izango da. Akordioak lau hamarkadako iraupena izango dau, eta, Udalaren arabera, lemoazarren kultur aukerak osotuta ahalbideratuko dau eraikin handi horrek. Abadetxeaz gainera, Arraibiko liburutegiak eta ludotekeak, Jubiladuen Etxearen gaineko aretoak eta Elizondoko Kultur Guneak osotuten dabe Lemoako azpiegitura kulturala.

Lemoako Udalak atzen bost urteak daroaz gune kulturalen inguruko hausnarketea egiten. "Hasikerako diagnostikoa egin ondoren,

eskeintza kulturala hobetuteko metro karratu gehiago eskeiniko leukezan eraikin baten beharriaz agerian geratu zan" azaldu dabe Udaletik. Hainbat aukera aztertu ondoren, abadetxea iruditu jakien aproposena, eskeintzen dituan aukerengaitik, kokapenagaitik eta holan, eraikin barririk ez dalako egin behar.

Parte hartze prozesua

Lemoako Udalak parte hartze prozesua zabalduko dau urrietan, kultur guneak berrantolatu eta berdiseinetako asmoagaz. Prozesu honeri esker, lemoazarrak gune kulturalen antolaketa eta estrategia barriak aukeratu ahal izango dabez.

IGORRE

Euskera ikasteko diru laguntzak eskatzeko epea urrietan zabalik

Erredakzioa

Igorreko Udalak euskera ikasteko ohiko ikastaroak; hau da, ikastaro trinkoak edo barnetegietakoak, aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntza eta internet bidezkoak, diruz lagunduko ditu. Diru laguntzak urri lehenengoaren 15etik urri bigarrenaren 15era eskatu daitezke. Baldintza bi egiaztatu behar dira diru laguntzak jasoteko: batetik, Igorren erroldatuta egotea, eta, bestetik, % 80ko asistentzia edo maila gaintzea.

Diru laguntzok kostuaren % 100 kubriduten dabe. "Euskeraz bizi ahal izateko apustu argia egin dau Igorreko Udalak, euske-

rearen normalizazioa lortzeko pauso garrantzitsua; izan be, Igorren euskera ikastea guztiz dobakoa izango da, baldintzak bete ezker" dinoe Igorreko Euskera Zerbitzutik.

Aurkeztu beharrekoa

Interesatuak honako dokumentuak aurkeztu beharko dabez eskaria egiterakoan: eskabidea (beste diru laguntzen aitorpenagaz), matrikulearen ordainagiria, kontu korronteko zenbakia eta euskaltegiaren ziurtagiria (maila, datak, ordu kopurua eta asistentzia).

Argibide gehiago behar izatekotan, Igorreko Euskera Zerbitzura jo daiteke.



IGORRE

Suzko zezena eta erromeria Merkataritza Egunean

Erredakzioa

Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME) bere eguna ospatuko dau urri lehenengoaren 10ean Igorreko Kultur Etxeko plazan. Horretarako, Igorreko merkatarien alkar-teak, hainbat ekitaldi antolatatu ditu ume zein nagusientzat; tartean, aurreko urteetan arrakasta handia izan daben suzko zezena eta txu-txu trenak.

Goizean hasiko dau bere ibilbidea trenak, jaiari hasikerea emonez, eta arrastian be trenean ibilteko aukerea egongo da. Bazkalostean, umeentzako animazioa eskeiniko dau Aeiou taldeak.

Batez be nagusiak erakarriko dituen ekitaldiak egongo dira iluntzean. Izan be, zortziretan erromeria eta suzko zezena dagoz aurreikusita Kultur Etxeko plazan. Ordu berean, Igorreko merkatariek pintxoak emongo dabez doban.

Urri lehenengoak 10, zapatua

11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 19:30era, txu-txu trenak.

17:30etik 20:00etara, Aeiou taldearen umeentzako animazioa eta minidiskoa.

20:00etan, erromeria, suzko zezena eta pintxoak.

IGORRE

Motorzaleen topaketea eta jaia

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 3an, bailararik zeharreko urteroko pasealdia eta ondorengo jaia egingo dabe Arratia eta inguruko motorzaleak Arratia Motor Taldeak antolatuta. Bazkaria, jolasak eta, arrastian, kontzertua egongo da, Indomables Rock Band taldearen eskutik.

Parte hartzaileak 10:00etan egon beharko dira Igorreko Berezi tabernan izena emoteko. Izena emoten daben lehenengo berrehunai kamiseteta oparitutako deutsee antolatzaileak. Izena emon ostean, ibilbideari ekingo deusie motordunak, geldialdiak eginez pintxoak jateko. Igorreko eskoletan izango da helmuga.



Arrastian, jolasak eta Indomables rock bandaren kontzertua egongo dira. Bilboko taldea 1990eko hamarkadan sortu zan Aire izenagaz, baina laster izena aldatu eta motorzaleen artean arrakasta handia izandako lehenengo diskoa atera eban. Taldeak

ARTEA

MerkArtea hilaren 17an

Erredakzioa

MerkArteak, Arteako artisautza eta nekazaritza azokeak bere 23. edizioa izango dau urri lehenengoaren 17an. Azokan, urte sasoi honetan baserriak eskeintzen daben onena egongo da salgai. Eta inguruko artisauen produktuak be erosi ahal izango dira.

Baina egun osoko jaia da MerkArtea goizeko ordu txikiak arte luzatuten dana. Izan be, gaubean kontzertua, erromeria eta DJak animauko dabe Arteako baserriaren jaia.

Azokea 10:00etatik 14:00etara izango da eta azokeagaz batera, Zureskuk egurrezko jolasak erakutsiko ditu plazan 11:00etatik 13:00etara; 12:30ean Gibelurdi-nak taldeak kalejiera egingo dau erraldoiak batera eta 13:00etan, herri kirolak egongo dira Ekomuseoan. Han, Irati Astondoak eta Esti Olibaresek trontza, azkora eta lokots batzeako erakustaldiak egingo dabez.

Iluntzean, 20:30ean, Kalakan taldeak kontzertua eskeiniko dau, gauerdian, 24:00etan, erromeria egongo da Tximeleta taldearen eskutik eta, jaia amaituteko, DJ Bull goizeko hiruretatik aurrera.

heavy rock-a AEBko hegoaldeko musikeagaz batzean dau eta daborduko bost disko ditu kalean, *Material caliente*, *Vamos allá*, *De hueso y piedra*, *IV* eta *La hora de despertar* izenekoak.

Eguna amaituteko sari banaketea eta zozketea egingo dira.

Urri lehenengoak 3, zapatua

10:00etan, izen emotea Igorreko Berezi tabernan.

11:00etan, Arratiako bailararik ibilbidea, pintxoak jateko geldialdiak egingo dira.

13:30ean, helmuga Igorreko eskoletan.

14:30ean, bazkaria izena emon dabenentzat. Bazkalostean jolasak.

18:00etan, Indomables Rock Band taldearen kontzertua.

20:00etan, sari banaketea eta opari zozketea.

agoa Ortodontzia
Inplanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igorre-Bilaka
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbitzuak
R.P.S. 21/06

begitu
arria ubide berria

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bilaka)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoak · Fiskalak · Lanekak · Kontularitza
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza
Tinoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

ARTEA

Sorkun eta Niketz taldeak joko dabe Arteako jaietako zapatu gauean



Arteako jaiak.

Artxiboko argazkia.

Erredakzinoa

Sorkun (Sorkunde Rubio, Errenteria 1977) kantari polifazetiko eta ibilbide luzedunak eta euskal rock gogorra egiten dauan Niketz taldeak ipiniko deustie martxea jaietako zapatu gauari. Rock musikeak Artean hartuko dau jaietan, eta ez bakarrik eszenalekuan, kaleetan be rock-a entzun ahal izango da Rockalean elektrotxarangearen eskutik. Gainera, buruhandiak, ume eta nagusientzako antzerki eta ikuskizunak, erromeriak, kuadrilen olinpiadak eta txapelketak jasoten ditu aurtengo egitarauak.

Andra Mari jaiak giro onean ospatutea da Arteako Jai Batzordearen helburua. Horregaitik "Jaiak errespetuz bizi" aukeratu dabe lema moduan. Ondo pasetako eskubidea danona dala gogoratu, eta horretan inpliketako eskatzen deustee Jai Batzordekoak herri-tarrai. "Inpliketea, parte hartzea eta euskereagazko konpromisoa

gauzatzeagaitik aurrezdik eskertuz, ondo pasa!" dinoe.

Egitaraua

Urri lehenengoak 7, eguaztena
18:00etan, txupinazoa. Txupine-roak eta buruhandiak.
18:30etik **20:00**etara, Zunba saioa.

Urri lehenengoak 8, eguena

11:30ean, mezea.
12:00etan, jubiladuentzako kopa-putxoia plazan.
17:00etan, umeentzako pailazo ikuskizuna, Tomaxen abenturak.
19:00etan, erromeria Joxe Mendizabalegaz.

Urri lehenengoak 9, barikua

18:00etan, kale antzerkia *Putinen guardasola*.
20:00etan, oilasko jana.
21:00etan, umeen Play-Back-ak.
21:30etik **23:30**era, Rockalean elektrotxarangearen kontzertua.
00:00etan, erromeria Laiotz tal-

deagaz.
01:00etan, nagusien Play-Back-ak.

Urri lehenengoak 10, zapatua
11:00etatik **15:00**etara, umeentzako parkea frontoian.

12:00etan, kalejirea Musika Eskoleagaz.
12:00etatik **14:00**etara, Beldur Barik mahaia.

14:00etan, Tortilla Txapelketea eta bazkaria.
18:00etan, kuadrilen olinpiadak.
23:00etan, kontzertuak: Niketz eta Sorkun. Ondoren erromeria Haitzama taldeagaz. Mozorro gaua. Gaia: ipuinak.

Urri lehenengoak 11, domekea

12:00etan, umeen eskupelota partiduak.
13:30ean, Arteako jantza taldea.
16:00etan, Mus eta Briska Txapelketea. Umeentzako mahai-jokoak.
19:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.
21:00etan, txokolatea.

ARRATIA

Antzerkia eta txitxi-burruntzia Oban, erromeria Lemoatxen

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 1ean, hasiko dira Obako jaiak eta hamabostaldi osoan zehar jai ugari ospatuko dira auzune eta ermita inguruetan. Hilaren 2an San Antolin eguna ospatuten dabe lemoaztarrak Lemoatxako San Antolin ermitearen inguruan Baba Lehiaketa eta erromeriagaz eta Andra Mari Eguna, hilak 8, Lemoako Elizondon ospatuko dabe, besteak beste.

Sainduniak Oba (Dima)

Urri lehenengoak 1, eguena
20:00etan, txupina eta jaien hasikerea.

Urri lehenengoak 2, barikua
12:30ean, mezea.

Urri lehenengoak 3, zapatua

Eskulanen erakusketea zapatu eta domekan.
11:00etan, Dima-Oba bizikleta igoerea.
13:00etan, mezea eta ostean po-tea.
19:30ean, antzerkia *Oba, The Far*

Dar West.

20:30ean, txitxi-burruntzia.
21:00etan, Bola Txapelketea.

Urri lehenengoak 4, domekea
11:30ean, Nordic Walking Dimatik Obara.

12:00etan, krosa.
14:30ean, auzo bazkaria.
18:00etan, Briska eta Igel Txapelketak.
19:00etan, txokolatea.

San Antolin jaiak Lemoatx (Lemoa)

Urri lehenengoak 2, barikua
11:00etan, mezea San Antolinen; ostean barauskarria.
14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena.
17:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

Andra Mari jaiak Elizondo (Lemoa)

Urri lehenengoak 8, eguena
12:30ean, mezea.
17:00etan, haurrentzako jolas eta tailerrak.
20:00etan, Zeani Antzerki Taldearen antzezlanak.

ARRATIA

Pasiotarren Eubako ikastetxean ikasitako arratiarrentzako deialdia

Jon Urutxurtu

Datorren urri lehenengoaren 17a egun esanguratsua da Euskadiko kultura eta hezkuntzarentzat. Egun horretan 60 urte beteko dira pasiotarrak Euban (Amorebieta-Bizkaia), Orueko tontorrean, euren ikastetxea zabaldu ebenetik. Eta ez dira gitxi Arratia, Zeberio eta Ubidetik ikastetxe horretara ikasketak egitera joan ziranak.

Eubako ikastetxea hasikera baten apaiztegia izan zan, ondoren, 70eko hamarkadan, San Gabriel ikastetxea bihurtu zan, eta 80ko hamarkadatik gaur egunera arte Lauaxeta Ikastolak jarraitzen dau bertan. Milaka ikasle igaro dira Eubako ikasgeletatik eta orain, apaiztegi eta San Gabriel ikastetxearen sasoiko ikasle ohiak osotuten daben Pasiotarren Lagunen Kultur Elkarteak 60. urteurrena ospatzeko egitaraua prestatu dau.

Urteurrenaren ospakizunean Eubako historia ezetutera emoteaz gain, gogoratu gura da ikastetxe horrek, batez be diktadurearen urte gogorretan, euskal kultureagaz eta bereziki euskereagaz izan eban konpromisoa gelen barruan zein

geletatik kanpo. Holan, ospetsuak izan ziran, 1959 eta 1979 urteen artean San Pablo Gurutzekoa pasiotarren sortzailearen eguna ospatuteko antolatzen ziran *Euba'ko Eukal Jaiak*.

Pasiotarren ikastetxeetatik igaro diran Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta baita Galizako ehunka ikasle bilduko dira eta denpora haretako lagunak alkartzeko eta bizipenak gogoratzeko aukerea eskeini gura dabe Eubako 60. urteurrenaren antolatzaileak.

Egitaraua

11:00etatik **11:30**era, ondo etorria. Harrerea parrokiaren aurrean. Hamaketakoa.
11:45ean, harrera ospakizuna.
12:00etan, argazki zaharren erakusketea eta euskal jaiak "vintage": jantzariak, bertsolariak eta abeslariak.
13:00etatik **14:00**etara, ikastetxeo instalazioetara bisita.
14:00etatik **14:15**era, argazki saioa. Argazkiak taldeka egiteko aukerea.
14:30ean, bazkaria. Bazkarirako, 30 euro honako kontu honetan sartu: 3035 033 60 0330028963. Ordainketan izen-abizenak ipini.

Gora Andra Mariak!

Arteako Udalak eta Jai Batzordeak
**JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ**



BIZKAIKO ARTZAI TXAKUR TXAPELKETEA

Bizkaiko erraza libreko Artzai Txakurren txapela Diman geratu da

Abuztuaren 28an jokatu zan Diman, erraza libreko Bizkaiko Artzai Txakur Txapelketea eta Beñat Saratxok, Dimako Amantegi auzunekoak, lortu eban txapela Rita txakurragaz. Txapelketea Euskadiko erraza libreko txapelketarako klasifiketako baliagarria izan da. Irabazleaz gainera, Abadiñoko Jose Antonio Agirrek, Sofi txakurragaz, eta Zornotzako Iñaxio Irakulisek, Bat txakurragaz, osotuko dabe Bizkaiko ordezkaritza Euskadiko Txapelketan.

Erredakzioa

Bizkaikoa, zaharren egoitzaren ondoko landetan jokatu zan eta bertan bost partaide lehiatu ziran. Aitatutako Dima, Abadiño eta Zornotzakoagaz batera, Galdakaoko partaide bi be egon ziran: Juan Ramon Azkargorta Luki txakurragaz eta Bittor Bengoetxea Bat txakurragaz.

Proba bi egin ebezan txakurrak. Lehenengoan, banderakaz egindako bide batetik joan behar zan txakurra, "ahal dala, bide barrutik". Gero, lehenengo atearen atzetik, eskortaren atzetik eta bigarren atearen atzetik pasau behar zan. Handik pasakeran, epaileak txistua jo eta txakurra geldirik geratu behar zan, "seko". Ondoren, ardiak zirkulu batera eroan "astiro, mantso eta zoratu barik" eta gero epaileak esaten eben atetik sartu. Bigarren proban, txakurrak ardiak eskortan sartu behar izan ebezan.

Lehenengo proba egiteko 7

minutu egozan, eta bigarrena egiteko 6 minutu. Proba amaitu ezean, ateen aurretik pasau ezker, ardiak haginka egin edo gelditu behar zanean txakurra ez bazan geldituten, puntuak galtzean ebazan.

Zumaiako Eli Alonso eta Mikel Garaia eta Matxinbentako (Gipuzkoa) Pello Segurola izan ziran epaileak.

Euskadiko Txapelketea

Erraza libreko txapelketak Atzarpe alkarreak antolatuten dauz eta parte hartzeako alkarreko bazkide izan behar da. Euskadiko Txapelketan 8 edo 9 txakurrek hartuko dabe parte, Bizkaiko hiruk, Gipuzkoako bostek eta, akaso, igazko txapeldunak. "Gipuzkoan bazkide gehiago dagoz. Bizkaian, hemen gabizen bostak bakarrik gagoz. Euskadikora, orain arte bi klasifikau izan dira Bizkaiatik, baina leku bat irabazi dogu, Gipuzkoak partaide bi galdu dauzeta" azaldu deutso BEGITURI Beñat

Saratxok.

Euskadiko Txapelketea Elgoibarko San Migel auzunean izango da urri bigarrenaren 2an.

Border Collie erraza

Erraza libreko txapelketea izan arren, parte hartu eben bost txakurrak Border Collie errazakoak ziran. "Batez be, Border Collie errazako txakurrak erabilten dira artzai txakur moduan. Guretzako ibilteko beste modu bat da. Euskal artzain txakurra oso ona da, baina beste modu baten ibiltzen da. Artzai txakur mota diferentek dira" dino Saratxok.

Dimakoa ABCT (Asociación de Border Collie de Trabajo) alkarreko partaide be bada. Holan, estatu maila, Europa maila eta mundu mailako txapelketetan hartu leike parte. "Estaduan bospasei txapelketa egoten dira eta handik Europara sailkatu zeinke eta gero munduko txapelketara. Finlandian izan da Europako Txapelketea eta Holandan izango da mundukoa".



Rita igaz Bizkaiko txapeldunorde izan zan

Beñat Saratxo, ganaduzaina, nekazaria eta artisaua da. Txakurrak manejetako txistuak egiten dauz berak eskuz Dima Whistles izeneko enpresan eta txapelketan banandu ziran egurrezko trofeoak be berak egindakoak ziran. Rita, bost urteko txakurragaz irabazi dau Bizkaiko Txapelketea.

Pozik egongo zara Bizkaiko txapela etxean bertan lortzeagaitik, ezta?

Sano pozik. Irabazteko gogoia neukan eta lortu dot.

Beste txapelik irabazi dau Rita txakurrak?

Igaz Bizkaiko txapeldunorde izan zan, bigarren egin eban, eta aurren irabazi. Ea zer egiten dauan Euskadiko Txapelketan.

Zenbat urte ditu txakurrak eta zenbat denpora darozue entrenetan?

Txakurrak 5 urte daukaz eta atzenengo hiru urteotan serio ibili gara txapelketetarako entrenetan. Nik etxean ardiakaz ibilteko prestatzen dodaz txakurrak, baina etxean edozein gauzak balio dau ardiak leku batetik bestera eroateko, eta txapelketetan ez. Haginkadak eta artaldea eskortan zelan sartu, zelan mobidu... dana euki behar da kontuan. Fin josi behar da dana.

Zergaitik emon zenduan txapelketetara aurkezteko pausua?

Txapelketea egin dan landan, urtean behin, artzai txakurrak manejetan ikasteko ikastaro bat egiten da. Alejandro Ibarra artzai txakur hezitzaile naparrak emoten dau hori ikastaroori, eta ni beragaz hasi nintzan oin dala 5 urte-edo. Berari zor deusatz batez be oin dakidan gehiena.

Pastoreentzako gauzak egiten dozuz Dima Whistles-en, ezta?

Bai, txistuak, pastoreentzako makilak, naruzko edozein gauzatarako fundak... Apurka-apurka mundu mailan ezaguna egin da enpresa eta Diman egindako txistuak Australian be erosi leitezke!



Beñat Saratxo Rita txakurragaz.





erabili euskara

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

CURSO
16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak



Izena emateko epea irailaren 1etik 23ra

Goizez 10:00-13:30. Arratsaldez 16:00-19:00

EUSKALDUNTZE IKASTAROAK

Astelehenetik ostegunera

Hasiberriak: astelehenetik ostegunera, egunean 2 ordu

Hizkuntza eskakizunak prestatzeko ikastaro bereziak

TRINKOAK

Hiruhilabetekoak: egunean 4 ordu

AUTOIKASKUNTZA

On-line ikastaroak

TALDE BEREZIAK: merkatariak, gurasoak, etorkinak...

Nagusiak: 10 € matrikula

Langabetuak: 20 € matrikula

EUSKARA ESKURA TXARTELAren onurak jasotzeko aukera

DESKONTUAK ETA BEKAK

Irailaren 1. hamabostaldian matrikulatuz gero, %25eko deskontua

Ikasturteko asistentzia %90ekoa izanez gero, matrikularen %50 berreskuratzen da

inbiu 2016

irailaren 17an

11:30 kultur etxetik hasita
ZUNBAJIRA herritik zehar

15:00 herri bazkaria

17:00 karaokea

18:30 Jokaldigaz
erromeria

20:00 txokolatea



**Zeure
burua
ezetutera
emoteko
iragarri
zaitez
BEGITUN**



ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net



Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA



MERKATARITZA EGUNA 2016

www.ame.eus

Irailaren 10ean

IGORREN – KULTUR ETXEKO PLAZAN

TXU-TXU TRENA

11:00etatik-14:30ra
17:00etatik-19:30ra



UMEENTZAKO ANIMAZIOA ETA

MINIDISKOA

17:30etik-20:00etara



ERROMERIA

20:00etan

SUZKO ZEZENA



PINTXOAK

20:00etan

Gratis!!!

#igorrenerosi
Jarrai gaitzazu



ARGANKI-LEHIAKETE A





V

**Argazki lehiaketeta:
bialdu zure argazkiak begitu@topagunea.com
helbidera hilaren 27a baino lehenago.**

Sari ederra eroan zeinke!!

MENDIA

Edurtegitik pasauko dira Areatzako Mendi Martxako ibilbide biak**Erredakzioa**

Areatzako Mendi Martxak ibilbide bi izango ditu aurten lehenengoz, baina antolatzaileak gura izan dabe biak pasatea edurtegitik. Hori dala eta, martxa laburra egin gura dabena autobusean joango dira Bikotzganera eta bertatik abiatuko dira.

Ibilbide laburra zein luzea egiteko hitzordua urri lehenengoaren 10ean da, goizeko 08:00retan, Areatzako plazan. Ibilbide laburra 17,5 km. ditu eta 827 metroko desnibela. Ibilbidea, Bikotzganera, Mendigana, Hirumugarrieta, Areatzako neberoa, Pagomakurre, Kereizekoatxa eta Elorribitik pasetan da, helmuga Areatzako plazan izan aurretik. Ibilbide luzea, barriz, 27,5 km. eta 1.464 metroko

desnibela dauka. Ibiltariak Areatzatik abiatuko dira eta Upo eta Asteitzera igoko dira, gero Mendiganara jo eta ibilbide laburragaz bat egiteko.

Martxea amaitutakoan, parrilladea eta oparia izango ditue partaideak. Areatzako Hotel Bainuetxean gau bat eta Atxarte Mendiko Dendako materiala zozketatuko dira.

Izen emotea

Izena emoteko modu bi dagoz. Urri lehenengoaren 8a baino lehenago, Areatzako Mendi Martxaren webgunean emon daiteke izena, 8 euroko prezioan. Martxa egunean be emon daiteke izena, urtekera puntuan, 07:15etik aurrera, 12 euroko prezioan.

BTT

Ubideko Mendi Bizikleta Martxea hilaren 10ean**Erredakzioa**

Amexier Mendi Taldeak eta Ubideko Udalak antolatutako aurten Ubideko Mendi Bizikleta Martxea urri lehenengoaren 10ean izango da. Partaideak 09:30ean abiatuko dira plazatik 38 km. egiteko. Helmuga be Ubideko plazan izango da.


Izena alde aurretik emon daiteke Amexier taldearen webgunean. Online egin ezker, federauta dagozanak 8 euro ordaindu beharko

dabez eta federauta ez dagozanak 11 euro.

Egunean bertan be emon daiteke izena probea hasi aurretik. Egun horretako prezioak 12 eta 15 euro dira federauta eta federauta ez dagozanentzat, hurrengoz hurrengo.

Ibilbidea

Mendi bizikletako partaideak ibilbide hau egingo dabe: Ubide plaza, Kalzada, Otxarreta, Upete, Saldropo, Baztelarra, Upete,



Ubide, Siskiño, Alaran, Gorostiza, Muruako harrobiak, Lexaranda, Atxurdin eta Ubide.

BOLA JOKOA

Jon Arangurenentzat Zeanuriko Bola Txapelketea**Jon Urutxurtu**

Jon Aranguren eskuratu dau 2016ko Zeanuriko Bakarkako Bola Txapelketea. Finala San Lontzon jokatu zan, abuztuaren 11n, San Lontzo bigarrenen, eta bertan udan zehar herriko auzuneetan jokatutako lau txapelketetako —Altzuakoa, Ipiñakoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa— lehen lau sailkatuak hartu eben parte. Aurtengo irabazlea Jon Aranguren izan da eta bigarren eta hirugarren tokietan Danel Beitia, 12 urteko gazte txoa, eta Joseba Kortazar sailkatu dira.

Zeanuriko bolarien hurrengo zitea Alzustan izango da urri bigarrenaren 2an, domekan,



Aranguren bola jaurtitzen 2015eko Kofradien Arteko Txapelketan Alzustan.

San Migeletako egitarauaren barruan, eta kofradien arteko

taldekako txapelketea jokatuko da bertan.

Arratia
Ubide eta zeberiko
euskerea
eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be **begitu-lagun**

Hamabostero
begitu zeure etxean

Eltxean jasoko dozuz zertu kultura Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Coagi eta helbide honetara bidali:
Zertu Kultura Elkarteak,
Berrito Plaza 21, 20112 Artea

Izen-abizenak:
helbidea:
herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
munda ezin dugu

FUTBOLA

Bigarren Mailako lehenengo partidua etxetik kanpo Arratiak

Erredakzioa

Liga hastear dago eta Arratia futbol klubeko andrazkoen taldea Bigarren Mailan estrenauko da. Lehenengo partidua urri lehenengoaren 4an jokatuko da Gasteizko Aurrera taldearen kontra, Gasteizko Olanabe zelaian. Gizonezkoen Arratia A taldea barriz, Galdakaoren kontra neurtuko da lehenengo partiduan, hilaren 18an. Arratia A taldea Lurraldeko Lehen Mailan dago.

Arratiak Bigarren Mailan jokatuko dauan lehenengo partidua irabaztea gatxa izango dala uste dabe jokariak. Fetxa aldaketa batzuk egon dira eta arratiarrak hasieran aurreikusitakoa baino astebete gitxiago izan dabe tenporadea prepartetako. "Gasteizko Aurrera taldeak urte asko daroaz maila honetan eta gu hasi barriak

gara. Oso onak dira. Baina guk irabazteko gogo handia daukagu" azaldu deutso BEGITURI Naia Totorika Igorreko jokariak.

Denporaldi honetan, Berriozar, Mulier FCN, Nuestra Señora de Belen, Athletic Cub B, Gasteizko Aurrera, Eibar, Mariño, Pauldarrak FKT B, San Ignacio, Logroño, Ardoi, Gasteizko Neskak eta Añorga taldeen kontra neurtuko da Arratia. Gizonezkoen Arratia A taldearen denporaldi honetako aurkariak honako honeek izango dira: Basconia B, Salesianos, Busturia, Trapagan A, Uritarra A, Iturigorri A, Astrabuduako A, Gurutzeta, Galea A, Abadiño, Indautxu, Etxebarri A, Begoña, Dinamo-San Juan A, Galdakao, Otxarkoaga A eta San Ignacio A.

Futbol Eskolak

Arratia Futbol taldeak, 2016-2017

denporaldian Jubenil mailara arte Arratia taldean jokatuko gura dabenai deialdia egin deutse eguntan. Jubenil eta Kadete mailetako mutilak abuztuko atzenengo astean hasi ziran entrenetan. Infantil, Alebin eta Benjamin mailako neska-mutilak barriz, urri lehenengoaren 2an, 17:00etan, daukie hitzordua. Hilaren 6an, Kadete mailako neskek eta 2005 eta 2007a artean jaiotako neskek, astelehenetik barikura, 17:00etatik 18:30era pasa daitezke Urbietako futbol zelaitik futboleant hasteko.

Lemoa Harrobi Futbol Kluba futboleant jokatuko gura daben 2005 eta 2006an jaiotako ume bila dabil, 2016-2017 denporaldian Alebin mailako taldeak osotuteko. Interesdunak Lemoako Arlonagusia futbol zelaitik pasatu daitezke, astelehenetik barikura 18:00etatik 20:00etara.

AZKOREA

Urrezko Kopa Atutxarentzat

Erredakzioa

Donostiako jaietako egitarauaren barruan jokatutako Urrezko Kopa irabazi eban abuztuaren 15ean, Aitzol Atutxa dimoztarrak.

Ez zan sorpresarik egon eta espero zan moduan Atutxa II. izan zan lehenengoa beharra amaituten, 34 minutu eta 8 segundoko denporan. Bigarrena Iñaki Azurmendi izan zan eta hirugarrena Mikel Larrañaga. Igaz be irabazi eban Donostiako Urrezko Kopa Aitzol Atutxak.

Errez irabazi eban arratiarrak lehiaketea. Izan be, bigarrenak mi-

nutu bi eta hamahiru segundu gehiago behar izan ebazan hamalau kanaerdikoak ebateko, 36 minutu eta 21 segundo. Hirugarrena Mikel Larrañaga, Gipuzkoako txapelduna izan zan. Larrañagak 38 minutu eta 52 segundotan amaitu eban lana.

Ha-ta guzti be, Aitzol Atutxak ez eban Donato Larretxeak 1995ean ezarritako marka apurtu. Marka hau, 27 minutu eta 17 segundokoa da-eta.

Abuztuaren 13an ostera, Sunbilla jokatutako XV. Ramon Latasa Sarian bigarren egin eben Atutxa eta Mugartza II.ak 4 segundogaitik.

DUATLOIA

Mendi Duatloia Zeanurín



bea amaitutakoan, dutxea hartu eta bizikletea garbitu ahal izango dabe partaideak.

Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitua

Aurten Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituko hirugarren proba izango da Zeanurikoa. Igaz, abenduan izan zan, atzena. "Zirkuituko egutegian libre egoan urri lehenengoaren 17a eta eguraldi hobea eukiko dogulakoan aldatzea ebatzi genduan" azaldu deutso BEGITURI Miren Ozerinjauri antolakuntzakoak.

VI. Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitua urri lehenengoaren 3an hasiko da Igartzan (Gipuzkoa) eta Zegaman (Gipuzkoa) amaituko da zemendiaren 26an. Hau da egutegia: urri lehenengoak 3, Igartza; 10, Ibarra; 17, Zeanuri; 24 Urduña, (Urrezko Mendi Duatloia). Urri bigarrenak 1, Arriaran; 8, Artziniega; 15, Uztarroze; 23, Amasa. Zemendiak 6, Usansolo (Euskal Herriko Txapelketea); 13, Ea; 20, Biriatu; 26, Zegama.

Erredakzioa

Aurten, urri lehenengoaren 17an jokatuko da Joko Alaik antolatutako Zeanuriko II. Mendi Duatloia. Proba herrikoia da hau eta umeak zein nagusiak parte hartu ahal izango dabe. Goizeko 11:00etan 3 urtetik 16 urtera artekoak ekingo deusie probeari adin bakotxerako egokitutako zirkuituan, eta arrastiko 16:00etan proba nagusia izango da.

Zirkuituak hiru sektore ditu. Lehenengoa, 7,32 km.koa, arineketan egiteko da; bigarrenak, 15,33 km. ditu bizikletan egin behar diranak, eta hirugarrenak 1,22 km. barriro be arineketan egiteko.

Pasta bazkaria egongo da gura dabenentzat eguerdian, eta pro-

HERRI KIROLAK

Gipuzkoako Lasto Altxatze txapela irabazi dau Jose Martin Bustinza "Tubi" k

Erredakzioa

Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak Gipuzkoako Lasto Altxatze txapela lortu eban Aian abuztuaren 10ean. Txapeldunak 24 jasoaldi egin ebezan. Bigarrena Lander Otermin izan zan 21 jasoaldi eginda.

Tubi Dimakoa izan arren, Eibarren bizi da eta igaz hasi zan Gipuzkoako Lasto Altxatze Txapelketan parte hartzean. Birritan hartu dau parte eta bietan irabazi dau txapela. Bizkaiko Lasto Altxatze txapelduna Jon Loiola da. Hau be dimoztarra.

Euskal Herriko txapelduna da lastoa botaten zein altxatzen eta kirol horreetan ez dauka parekorik. Izan be, Euskal Herriko hamar Lasto Botatze Txapelketa egin dira eta hamarrak irabazi ditu berak. Eta Lasto Altxatzean be inork ez dauka berak beste txapel: hamar txapelketatik, sei irabazi ditu Tubik.

Hurrengo zitak

Urri lehenengoaren 24an, Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketea jokatuko da eta bertan izango da Tubi. "Orain entrenetea toketan da" dino txapeldunak. Lehenago be beste zita bat dauka kirolariak.

Hilaren 3an Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketea jokatuko da Donostian. Han be, izango da Gipuzkoa ordezkatzeko Lasto Altxatze neurketan.



Jon Loiola eta Tubi txapelagaz.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia
Zentroa
Igorre
Elexalde 4
Telefonia 94 631 55 08
Andra Mari
Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

Kili-Kili Umeen denda
Umeen denda
94 673 63 51
Agire Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
Iraila osoa.
Tlf. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

KULTUR ETXEA

Arteako Kultur Etxea
barriztuko dabe 2017an

Erredakzioa

Liburutegia, ikasteko gela insonorizatuak, Gela Lila (andren gela), jubiladuen lokala eta berbaldi eta emonaldietarako areto handi bat egongo dira barriztuten dabenean Arteako Kultur Etxean beste gauza askoren artean. Hori dala eta, datorren urteko udal kontuetan lanak egiteko dirua egongo da.

Arteako Kultur Etxea barriztatu aurretik, Udalak herritarrek gura daben kultura mota definitzeko eta Kultur Etxea horretara egokitzeko, prozesu parte hartzailea ipini eban martxan. Zortzi saio izan ziran eta, batzaz beste, 35 personak hartu eban parte Alex Carrascosaren gidaritzapean. Prozesuan ateratako konklusioak, arkitektoak eraikuntzan egin beharreko aldaketak proposatzen dauzan proiektua egingo dau. Herritarrek proiektuari oneretxia emon ostean, 2017ko udal aurrekontuetan diru partidea ipini eta lanak hasiko dira.

Kultura dinamizetako prozesu parte hartzailea

Arteako kultura dinamizetako prozesuak lau fase izan ditu: Gogoa, Abian, Bidean eta Artean izenekoak. Lehenengo faseetan, asmo kolektibo

baten bila ibili ziran partaideak: ze herri eredu eregi gura eban definitu eban, erronkak, aukerak, estrategiak eta eginkizunak zehaztuta. Ondoren, ekintzetara pasau ziran: Kultur Etxea bisitatu eta ideak proposatu ezezan. Besteak beste, "liburutegi bat behar dau herriak; gaztegunea lekuz aldatu behar da; ludotekea sotoan dago, argi natural barik, eta argi naturala daukan leku batera mobidu behar da; andrentzako gela bat behar da, jubiladuak be lokala behar dabe; Musika Eskolea berrantolatu behar da, komunak egokitu behar dira eta sarrerea atseginagoa egin" azaldu deutso BEGURI Josu Murgia zinegotziak.



MARTXEA

Zeanurín ermitarik ermita

Urri lehenengoaren
4an, domekan, izango
da Ermiten XXIX. Mendi
Martxea

Jon Urutxurtu

Urri lehenengoaren 4rako, domeka, antolatu dau Joko Alai alkarteak Zeanuriko XXIX. Ermiten Mendi Martxea. Guztira, hogeit hamar ermita dagoz Zeanurín, baina ibilbide osoa egiten dabena hemeretzi inguruk igaroko dira, Egiriñako (Gorbeia) Edurretako Amarena kanpoan geratzen da eta.

Urtekeren herriko plazan izango da, eguneko lehen argiak kukurruku egiteaz batera, 07:30ean. Atera eta bost bat minutu geroago Eleizondo auzunean sartzean da ibilbidea, lehenengo, Piedadea izenaz ezagutzen dan baselezea aurkitzeko, eta ermitearen eleizpetik igaroz, atoan, Andra Mari parrokiagaz topo egiteko.

Eleizondotik ibilbidea Asterria kofradiako lurretan sartzean da, Santi Kurutz baselizearen bila. Goranzko joerari ekinez, Ogarabeiti auzotik Ogaragoiti auzora igoz, San Andrese-rra heltzean gara. Bideari ekinez, eta Urrekoatxa (582 m.) mendia ezke-

rrean itxita, Zeanuriren eta Dimaren arteko mugarako norabidea hartzean da San Blasera heltzeako. San Blasetik aurrera bideak beherantza egiten dau, Altzusta Kofradiako lurretan sartzean dagoan aldapatxoari barriro heldu baino lehen. Altzustan ermita bi dagoz zain: San Migel eta Santa Lutzi.

240-N gurutzatu eta gero, Undurraga auzunerantza jarraitzen da urtegia eskoialdean itxita. Arratia ibaia zeharkatu ostean, San Pedrori kuku bat egin eta Ipiñabururantz egiten dau bideak, hemen San Adrian, Santiago eta Santa Ageda dagoz. Atxondo igaro eta Muñegi aldetik aurrera, estartarik estarta, Zanburuko (789 m.) hatxaren itzalpean jarraitzen da, Altzuako San Juanera ailegatzeko.

Altzua kofradiatik Otzerinmendirazuzentzen dan pistatik 20 bat minutu ibili ostean, San Justo azaltzen da haresdui zoragarri baten erdian. Haresdua zeharkatu eta beherantza pare bat kilometro ibili ostean, San Lontzo. Aurbeheran jarraitzen da, errekatxoagaz topau arte, eta errekatxo zeharkatzeagaz batera Uribe kofradian sartzean gara; hiru baseleza aurkitzen dira bertan: San Migel, San Urban eta San Pedro. Jadanik ibilbidea azken txanpan sartzean da, eta ibiltariak txiri-txiri zuzenduko dira helmugearen bila. Plazan bertan, San Isidro eta bere aurrez aurre dagoan

San Antonio ermiten arteko igaro bezain laster helmuga azaltzen da.

Amaitzerakoan, hogeta hamabost kilometro eroango dabez oinetan parte-hartzaileak, baina ziur ziteari erantzuteak mereziko deusiel, ondare erlijiosoa ezagutzeaz batera uda udazken bihurtzen dabilen sasoi honetan natureak erakusten dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera ezin hobea eskeiniko deusielako Zeanuriko Ermiten XXIX. Mendi Martxeak.

Izen emotea

Izena egun berean 06:45etik aurrera herriko plazan emon daiteke. Nagusiak 10 euro, Joko Alaiako bazkideak 4 euro eta 14 urtetik beherakoak 5 euro pagau behar dabez.

Lau ibilbide dagoz: luzeak 35 km. ditu, ertainak 28 km., laburrak 15 km. eta umeenak 13,5 km. Umeen urtekerea 09:00etan izango da.



MUSIKEA

Dimetal Fest

Erredakzioa

Dimetaleroak Dimetal Fest jaialdiaren bigarren edizioa preparau dabe urri lehenengoaren 24rako. Arrastiko bostetatik goizaldeko hirurak arte, agerleku desbardinatan 8 kontzertu eskeiniko dabez rock metal egiten daben beste horrenbeste bandak. Oldies of the Graves, Incurseed, Cheel Ghar,

Erasol!, In Mute, Etorkizun Beltza, Lizzies eta Black Seed izango dira horreek bandok. Jaialdia diru-irabazi asmo bakoa eta autogestionatua dala adierazo deusie BEGURI antolatzaileak.

Kontzertuak bostetan hasi arren, metalaren jaiak egun osoa hartuko dau. Goizean, mahaingurua egongo da Gaztetxean eta umeentzako jarduerak frontoi txikian. Metalpoteoa eta metalbazkaria ez dira faltauko, eta bazkalostean, kontzertuen aurretik, Txan Magoak sorpresaz betetako ikuskizuna eskeiniko dau frontoi handian.

NARRAZINO LEHIAKETEA

Ipuin erotikoen lehiaketara
lanak bialduteko epea urri
bigarrenengan izango da

Erredakzioa

Dimako Kalenturak, Ipuin Erotikoen Lehiaketako III. edizioa martxan jarriko da urri bigarrenengan, Dimako Herri Liburutegiak eta Udalak antolatuta. Parte har-

tzeako urri bigarrenengan 1etik 22ra aurkeztu ahal izango dira lanak kultura.dima@bizkaia.org helbidera bialduta. Sari banaketeta zemendiaren 18an izango da.

Hiru urte dira Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketak,

Basauriko Euskarabila alkarteak antolatuten ebanaren lekukoa hartu ebanetik eta urtean-urtean indartuz doa. Erotismoa dauka gaitzat lehiaketak eta euskeraz idatzita egon behar dira narrazi-noak. Gitxienez lau orrialdeko luzeerea eta gehienez hamarrekoa izan behar dabe.

Sariak

Dimako Kalenturak Lehiaketako irabazleak 600 euro izango ditu sarizat, bigarrenak 400 euro eta Arratiako ipuin onenarentzat be 200 euroko saria egongo da.

TXAKOLINA

Txakolin produkzio ona espero da aurten



Lexartzako mahastiak Diman.

Axpe Goikoakoa kenduta, horkoa esportatu be egiten da-eta, Arratiako txakolin ekoizle gehienak autokonsumorako edo zuzenean saltzeako produziduten dabe. Dana dala, eta Arratiako ekonomian txakolinak leku anekdotikoa izan arren, tradizioa, teknologia eta jakintza zientifikoa buztartuz, gero eta kalidade handiagoko produktua sortzean da.

Erredakzioa

Txakolin produkzio ona espero dabe aurten Lexartzako Manu eta Gotzon Aurrekoetxeak. Izan be, momentu klabe bi egoten dira produkzioa ona izan daiten. Bata, mahatsa loratzen danean. Maiatza-bagila inguruan izaten da hau eta euriak lorea ez harrapatutea komenidu da. Aurten ez dau euririk egin.

Mahatsa batzeako momentua be erabakigarria izaten da. Urri bigarrenaren 10ean inguruan batzean da mahatsa eta orduan be eguraldia ona egitea komenidu da. "Udagoiena ona bada,

guretzat mesedegarria. Udagoien euritsuagaz apur bat urduri jarten gara" dino Gotzon Aurrekoetxeak.

Produktore txikiak dira Aurrekoetxea anaiak. Orain dala 35 urte, 1981ean hasi ziran txakolina egiten Olazabalgo Lexartzako baserrian. 500 zepa inguru daukiez eta 1.200 botila inguru ateraten dabez urtean. Aurrekoetxea anaiak ez dira txakolinetik bizi, Gotzon irakaslea da eta Manu kimikaria "Gure helburua ez da izan inoz txakolinetik bizitea eta ez gara biziko. Gehienbat kultura eta etnografiaren inguruko apustua da guretzat. Bertako produktua, sasoioko produktua bultzada

egitean dago gure apustua. Ilusino bat da, pasino bat".

Arratian dagoan txakolin produktorek handienak Diman dauka mahastia. Axpe Goikoa jatetxea da eta Garena txakolina egiten dau, urtean 30.000 botila inguru. Hamaika hektareako mahastia dauka. 2008an bost ha. landatu ebezan eta hortik ateraten dabe produkzioa; beste seiak 2013koak dira eta ondino ez dagoz produziduten. Espainia, Japoni, Alemania eta Estatu Batuetara saltzean dabe euren txakolina.

Txakolinaren eboluzio naturala

Sasoi baten, ardao garestia zala eta etxeko konsumorako egiten zan txakolina baserri askotan. Holan, 1996an, Arratiako 26 txakolin egile batu ziran Olazabalgo Txakolin Egunean, euren produktua erakutsi eta dastatzen emoteko: Dimako 10, Igorreko 4, Zeanuriko 3, Lemoako 5 eta Bediako 4. Aurtengoan, Olazabalgo hiru produktore egon dira. Gaur egun gitxiago dira ekoizleak, baina produktoreen kalidadea asko hobetu dala atzenengo urteetan dinoe.

Bizkaiko txakolina sano garratza zan lehen. "Lehen txakolinak garratzak izaten ziran hermetikoki ez ziralako ixten ontziak, edo mahatsa berde egoalako. Ontzia ez bada hermetikoki zarratzen, alkohola ozpin bihurtzen da. Garratasuna, kantidade bat ozpindu egin dalako izaten da, edo mahatsa oso berde egon dalako" dino Manu Aurrekoetxeak.

Gaur egungo, tresneriak hermetikoki zarratzea bermatzen dau. Eta ekoizleak, mahatsa batu aurretik alkohol probalea graduka neurtzen dabe momenturik egokienean batzeako. "Diman dana egiten badogu be, oso ondo kontrolatuta dago fase bakoitza. Lehen txakolin bera, gain-gaienean egon behar da gaisoen kontrako tratamenduak egiten. Mahatsa noz batu behar dan be graduka neurtzen dogu eta puntu onenean dagoanean batzean dogu. Eta gero osteko prozesu guztia bertan egin arren, tresna onak daukaguz eta pausu guztiak oso-oso kontrolatuta egiten doguz. Kalidadea lortzeako bideak badaukaguz, egoituta daukagulako gure sistema"

dinoe Lexartzakoak.

Eskeintza eta eskaerea

Aurrekoetxea anaiak Bizkaiko txakolinari etorkizun ona ikusten deutsie txakolinaren prezioa, "espekulatu barik", ardao honek izan behar dauan preziora ekarri ezkerro. Izan be, urteko beste ardao baten aldean prezio ikaragarri handia izaten dau txakolinak, lau edo sei bider gehiagokoa batzuetan.

Hori eskeintza txikia edo eskaera handia dagoalako izan daiteke. Orain dala 20 bat urte, inork ez eban tabernetan txakolinik eskatzen. "Gotzon eta biok hasi ginan Arratian zein Bilbon, tabernetan txakolina eskatzen, ez egoala jakin-

da. Lehenengotan "ez daukagu" esaten euskuen, baina handik gitxira, "bai, baina botila osoa izan behar da". Eta handik urtera, ardao legez saltzean zan" ekarri dau gogora Manu Aurrekoetxeak. Txakolinaren kalidadeak prestigioa emon deutsio eta horrerik esker eskaerea asko hazi da urteotan.

Ekoizle handiak egotea, enpresak, derrigorrezkoa dala uste dabe Dimakoak, baina Arratian euren txakolina saltzean daben gehienak "km. 0" sistema erabilten dabe; hau da, etxe inguruan eta lagunai saldu. Holan saltzean dabe gehien Lexartzakoak, nahiz eta Arratiako denda pare baten be saldu euren txakolina.

Arratiako txakolin erakusketea eta dastaketea. 1996ko abuztuak 15

Dima

Julian Bengoa (Olazabal)
Txomin Aurrekoetxea (Olazabal)
David Goti (Ziarrusta)
Ester Etxebarria (Oba)
Sabin Ibarra (Oba)
Luis Biritxinaga (Loite)
Jose Ignacio Aurrenetxe (Amantegi)
Mikel Iturrate (Amantegi)
Jose Ignacio Bilbao (Emagarai)
Zefe Ziarrusta (Makaztui)

Lemoa

Serapio Mimentza (Elizondo)
Jose Ignacio Betzuen (Lemorieta)
Jon Ozerin (Atutxola)
Anton Iturriotz (Arraño)
Javier Bizkarguenaga (Arraño)

Igorre

Andres Bustinza (Olabarri)
Aingeru Olibares (San Kristobal)
Enrike Palomares (Urkizu)
Imanol Zalduegi (Urkizu)

Bedia

Avelino Montalban
Paulino Berrojalbiz (Murtatza)
Juan Basterretxea
Atutxa

Zeanuri

Moises Olibares (Altzusta)
Salam Mares (Altzusta)
Migel Emaldi (Uribe)

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



AGENDEA

**URRI LEHENENGOAK 1
DIMA**

Hilaren 5era arte Zunba ikastaroan izena emateko epea. Udaletxean.

Obako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

LEMOA

Hilaren 23ra arte, Durundi Barri Dantza Taldearen 50. Urteurreneko urri bigarrenaren 1eko bazkarirako txartelak salgai Jubiladuen tabernan, Gaztetxean, Abxetan, Txoanen eta astelehenetan kiroldegian 19:00etatik 20:30era.

ZEBERIO

Zeberioko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**URRI LEHENENGOAK 2
DIMA**

19:30ean konzentrazioa, "Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxean gure doguz!". Plazan.

LEMOA

Jaiak Lemoatzen. 11:00etan, mezea eta ondoren barauskarria; 14:00etan, Baba Lehiaketea; 17:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz. Autobus zerbitzua 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Hilaren 10eko bertso bazkarirako tiketak erosteko atzen eguna. Udaletxean.

**URRI LEHENENGOAK 3
ARANTZAZU**

Udal ikastaroetan izena emateko atzen eguna.

AREATZA

Athletic Club Gorbeako Gurutzea Peñak antolatuta XXI. Gorbeiera igoera. 09:00etan Areatzako frontoian. Hamaitakoa kurutzean. 14:30ean hildako bazkideai omenalditxo Pagomakurren, ostein bazkaria. Bazkideak 5 euro, bazkide ez diranak 15 euro.

IGORRE

Arratia Motor Taldeak antolatuta, motorzale topaketea. 10:00etan, izen

Bertso bazkaria
EGITARAUA

13:00 POTEU MUSIKATUA
Kresala tabernatik hasita

15:00 BERTSO BAZKARIA
Elizondoko plazan

18:30 POTEU MUSIKATUA
Elizondotik

AMAIA AGIRRE
ETXAHUN LEKUE

Oharrak: eguraldi txarra bada, eskoletako aterpean izango da bazkaria. Tiketak udaletxean salgai: umeak 8€/nagusiak 12€ (abuztuak 17- irailak 2)

**Amaia Agirre eta Etxahun Lekue
Elizondoko bertso-bazkarian**

Urri lehenengoaren 10ean, 15:00etan, bertso-bazkaria egongo da Lemoako Elizondon. Bertsolariak Amaia Agirre eta Etxahun Lekue izango dira. Biak hartu eben parte 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusian eta bientzat hirugarren aldia izan zan. Bazkaurretik, poteo musikatua egongo da 13:00etan Kresala tabernatik hasita.

Etxahun Lekue (Larrabetzu, 1980) Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalista izan da 2004tik 2014ra. Eta 2006an eta 2010ean Bizkaiko txapeldu-norde. Bertsolaritza eskolak emoten ditu bertso-eskola eta ikastetxeetan. Amaia Agirrek (Villabona, 1977) be bertsolaritza eskolak emoten ditu. Xen-pelar saria irabazi eban 1998an.

emotea Igorreko Berezi tabernan; 11:00etan, Arratiako bailaratik ibilbidea, pintxoak jateko geldialdiak egingo dira; 13:30ean, helmuga Igorreko eskoletan; 14:30ean, bazkaria izena emon dabenezat; bazkalostean jolasak; 18:00etan, Indomables Rock Band taldearen kontzertua; 20:00etan, sari banaketea eta opari zozketea.

**URRI LEHENENGOAK 4
ZEANURI**

07:30ean, Ermiten XXIX. Mendi Martxea. Ibilbide luzeak 35 km.; ertainak 28 km.; laburrak 15 km. eta umeenak 13,5 km. Izen emotea 06:45etik aurrera plazan. 09:00etan, umeen martxearen hasikerea.

**URRI LEHENENGOAK 5
DIMA**

Hilaren 23ra arte, Yoga, Pilates, Eskulanak, Gimnasia hipopresiboa eta Zunba ikastaroetan izena emateko epea.

BEDIA

16:30ean Liburutegian 2016-2017 ikasturtea hasiko da. Bebetekan, ikasturte hasikerea.

17:00etan, ludotekan ikasturtea hasiko da.

16:30etik 19:30era, hilaren 20ra arte, udalak antolatutako ikastaroetan izena emateko epea. Liburutegian.

IGORRE

Jubiladuen Logroñorako eskursioan izena emateko azken eguna.

ZEANURI

Hilaren 15era arte, ikastaroetan izena emateko epea.

**URRI LEHENENGOAK 7
ARTEA**

Arteako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

IGORRE

08:30ean, Igorreko jubiladuak eskursioan

Logroñora.

**URRI LEHENENGOAK 8
LEMOA**

Jaiak Elizondon. 12:30ean mezea; 17:00etan umeentzako jolas eta tailerrak; 20:00etan, Zeani Antzerki Taldearen antzezlan.

**URRI LEHENENGOAK 10
AREATZA**

08:00etan, V. Areatzako Mendi Martxea. Ibilbide luzeak 27,5 km.; laburrak 17,5 km. Argazki Lehiaketea.

IGORRE

08:25ean, Igorreko Jubiladuak antolatuta, mendi ibilaldia Dimatik. Ibilbidea: Zumeltza-Oladu-Indusi-Dima. Autobus geralekuan.

AME Eguna. 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 19:30era, txutxu tren; 17:30etik 20:00etara, Aeiou taldearen umeentzako animazioa eta minidisko; 20:00etan, erromeria, suzko zezena eta pintxoak.

UBIDE

09:30ean, Ubideko Mendi Bizikleta Martxea.

**URRI LEHENENGOAK 11
DIMA**

Igitie Azokea.

**URRI LEHENENGOAK 12
LEMOA**

Hilaren 23ra arte, Sukaldiritza: menu orekatuak; Ebaketa, jantzigitza, kakorraz eta puntuari buruzko orientazio ikastaroak (I/II); eta Reflex Argazkigitza tailer praktikoa ikastaroetarako izen emotea. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

Ludotekea zabaltzen da. Orduetgia: astelehenetik barikura 16:30etik 19:00etara. Eguenetan "Familiek olgetan".

Liburutegia zabaltzen da. Orduetgia: astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**BIZIKLETEA SALGAI**

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m, 3 logela, komun 2, garajea eta trastelekua. Interesauta egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

MAKINARIA SALGAI

Bedarra zabalduetako eta batzeako makinak saltzean dodaz. Interesauak deitu telefono honetara 628 041 526.

**DANERIK
BEHAR BILA**

Etzeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Koxeduna. Dimoztara. Telefonoa 634 438 725.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak

bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

PARKING PARTZELA ALOKAIURAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakotzak. 659 395 911.

OPARITZEN DA

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.

GARRAIOLARIA BEHAR DA

Enkarguak etxera eroateko garraiolari autonomoa behar da. Deitu 94 673 60 55 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 BEGITUKO kamiseta bana.

Maitane Olatz Bilbao (Areatza)
Mireia Batiz (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ez hemen, ez han. Egur. 2.- Osmioa. Huts egin. 3.- Ostiral. 4.- Ohar. Letra bat. 5.- Eguzkiaren jainkoa. Letra bat. 6.- Bat erromatar. Behiaren ar heldua da. 7.- Bat zenbakia. 8.- Kuartua. Euskera zaharrean, txakur. 9.- Garau, bihi. Modua.

GOITIK BEHERA

1.- Abantaila. Galioa. 2.- Aitaren anaia. Soinuaren intensitatea neurtzeko banakoa. 3.- Letra bat. Nori atzizkia. Gogotsu. 4.- Txaramela. 5.- Zorro. Ahozkoan, zer. Bokala. 6.- Oihu luze eta zoli. Motel. 7.- Musika nota. Formalidadea.



Topau lorategi baten egon leitekezan zazpi gauza.



AKIKI MIKO

I
m
a
n
O
l
a
t
u



umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bixarra egin eta bukunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: uruzulu@euskalnet.net

GUILLERMINA GARCIA

"Magikoa izan da, harritu egin nau hemengo eko-feminismoaren indarrak"

Maputxe odola dauka Argentinako Pinamar urian jaio zan Guillermina Garciak. Maistra ikasketez, behin etxeko erosotasuna itxi eta Ameriketara zehar ibiltzeari ekin eutsan. Urratsak Mexikoko Karibe aldera eroan eben, eta bertan, bost urtez, maia herriaren kultura eta sendagaiak ikasi ebazan. Orain Arabako Valluerca (Gaubea) herrian bizi da eta Euskal Herriko Hazien Sarea erakunderako behar egiten dau.

Ointsu Zeanurin izan da Ipiñaburuko Gabriel

Vazquezek atondutako senda-bedar ikastaro baten.

Alvaro Rabelli

Zergaitik bat egin zenduan maia herriaren kultureagaz?

Gaztetatik amets egiten neban Mexikora joateagaz. Buenos Airesen antropologia ikasten hasi nintzan baina gurasoak ez eben gura ni hain urrun joaterik. Sasoi haretan maien egutegia ikasi neban, eta jakin neban egunen baten Mexikora joango nintzana. Paraguaitik pasau ondoren, 2007an parte hartu neban Amerika osoa zeharkatu eban "Ostadarren karabana" deitutako proiektuan, bakearen aldeko mobimentua izan zan. Karabana Brasilen amaitu zan eta bertan ekopedagogia irakasten lotu nintzan. 2010ean, atzenean, karabanearen koordinatzailea izan zan Alberto Ruz Buenfil-ek deitu euskun Mexikora maien txamanen batzarrean parte hartzeako. Holan ailegau nintzan. 2015ean Europarako erromesaldia hasi neban.

Zer da maia herriak irakatsi eutsuna?

Bost urte emon neban Tulum-

en, Cancun ondoan. Javier Hiros Lopez antropologoaren eskutik maien sendatzaile edadekoak ezetu ahal izan nebazan. Holan, maien herria deskubridu neban, haren burruka luzearen historia, haren ohiturak, musikea, hizkuntzea, eta batez be, haren sendagai naturalak ikasi nebazan. Maien mundu espiritualetan murgildu nintzan. Lagundu egin geuntsen lehenengo ekoaldeak eregiten. Zoritxarrez, azken boladan, inguru horretan be narkotrafikoaren presioa handitu da.

Ze alde topau dozu Ameriketako eta Europako senda-bedar munduan?

Hasteko geografiak eta klimak bereizten dabez landarak. Mexikon eta Brasilen landara tropikalak lan egin dot, ostera, Argentinako Patagoniakoak Europako antzekoak dira. Halanda be, alderik nabarmena da Ameriketara senda-bedarren mundua bizi-bizia dala, eguneroko gauza, ez dagoalako beste aukerarik. Hemen jente guztiak dauka ospitalea eskura. Ameriketara be sano kontu espirituala



da, senda-bedarrak gorputzaz gain, espiritua be osatzen dabe. Hemen, baseritarren jakintzea euskereari lotua dago, bedarren izenak dakiez, eta izenakaz batera zelan erabili. Benetako altxorra da.

Biak osagarriak izan leitezke?

Jakina! Kontzientzia bien buztardura da, Ameriketara pentsamentu praktikoa dogu, Europara planifikazioa. Ameriketara leku askotan ez dabe zertan gaurko munduari lotuta egon, dana eskuratu daukielako, etxebizitza egiteko, elikatze, sendagaiak aurkitzeko. Maiak horixe irakatsi eusten, dana Ama-Lurak, Pachamamak emoten deuskula. Europara lurak erieteko, senda-bedarrak batuteko, uztak jasoteko jai eta egutegi biodinamikoak atontzen dira. Holan izan da milaka urtez. Euskaldunok ondino gordetan dozue antzinako Europako espiritu hori, lurragazko loturea. Hori ezin da galdu!

Zeanuriko ikastaroan danok izan zarie andrak, eta gizonak?

Mexikon, Brasilen, Argentinan, Andeetan txaman gizonetako asko ezetuteko aukerea euki dot. Beste kultura batzuetan, ostera, andrak baino ez dira, maputxeen "machi-ak" lez. Hemen be, antzinean, andrazkoen esku, sorginen esku, egoan senda-bedarren jakintzea, eta uste dot Euskal Herriko andrak petrikilo rol hori berreskuratzen hasi dirala, atzera

be hasi dira hurbileko sendatzaileak izaten, behin Inkisizinoak eta eleizeak kendu eutseen kulturearen jagoleak izaten. Harritu egin nintzan Zeanuriko ikastaroan hamahiru andra magikogaz topetean, hemengo eko-feminismoak indar handia daukala konturatu naz. Prozesu historikoa bizi dogu, atzera be andrak arbasoen jakintzura jaso eta herriari, tribuari, emoten deusagu.

Zer emon ahal deusku senda-bedarren munduak?

Garrantzitsuena bizitzeaz gozatzea da, gure barneagaz eta gure etxea dan Lurragaz bat egitea. Lurragaz sendagaiak eta elikagaiak emoten deuskuz. Senda-bedarren bidez lurragaz bat egiten dogunean, konturatzen gara geure etxea, Lur planeta, jagon behar dogula etxebizitzak osasuntsuagoak izan daitezkan, medikuntza humanizatuagoa izan eta danon esku egon daiten, eta janaria benetako elikadura izan daiten.

Zer irakatsi gura zeunke hemen?

Azken hogeitaz urteotan ikasitako guztia konpartidu gura neuke. Nire ametsa eko-eskola bat zabaltzea da, bizitza osasuntsua bultzatzeko, lurragaz bat eginda norberaren garapen orekatua errotan laguntzeko, arkitektura osasuntsua zabaltzeko, lekuan lekuko ekonomia eta nekazaritza ekologikoa sustatzeko.

"Euskaldunok ondino gordetan dozue antzinako Europako espiritu hori, lurragazko loturea"

Arratiako AEK

- Matrikula zabalik
- Maila guztiak
- Ordu-tegi zabalak
- Azterketa ofizialak (1., 2., 3. eta 4. maila)
- Arratiako udal guztiak diruz lagunduta

Agirre Lehendakaria 4, Igorre
94 631 56 57 - 607 632 916
arratia@aek.eus

aek
euskara praktikoa

100% AFECTIVO

Eman izena · **Matriculate**

